

Edu Zelaieta Anta



Presbiziak lagundu
omen digu



Presbiziak lagundu omen digu

Edu Zelaieta Anta

Pamiela Poesia, 64

978-84-9172-380-6

2024. urtea - 112 or. - 15x21,5 cm

15,00 €

Ezagutza kokatuaren aitortzatik abiatzen da poema-bilduma, gorputz higatuaren aitortzatik: presbiziatik eta presbiziak dihardute lehen ale poetikoek. Ikusmenaren endekatzeak munduan egoteko eta munduari begiratzeko moduetan dakartzan aldaketak ditu poesia-gai, gorputzaren gramatika berri bihurturikoak: antiojo-dantzetan gorputzuriko keinuak, fokatze-ariketa etengabeetan zimurturikoak.

Begiratu higitzen ari zaidala sentitzen ari naizen aroan, mundua izendatzeko posizio berriak, lelo poetiko berriak ditu akuilu Eduk, jolasaren eta ironiaren bidetik: haur poesiaren oihartzunez josi du amaren ibilera baldartuez diharduen poema, edo kabaretaren oihartzunez josi du gorputz endekatuen desirez diharduena.

IRATXE RETOLAZA



Edu Zelaieta Anta
(Gasteiz, 1973)

Zenbait poesia-libururen egile: *Jendakiak urruneko familiatan* (2002), *Mugaldekoak* (2004), *Aldaira urdinak* (2010) eta *Ispilu biluziak* (2016).

Halako batean, *Mugaldekoak* haragiztatu ziren eta, literatura eta musika uztartuz, hiru disko plazaratuak ditu taldeak.

Kolaboratzaile komunikabide batzuetan: *Mundutik mundua. Arabako hitzontzi baten kronikak* liburua argitaratu zuen 2019an, ibilbide horrekin lotuta.

Itzultzaile eta idazle Haur Literaturan: egile-lan gehienak Txabi Arnal Gilekin batera idazten ari da, lau eskutara.

Mamiak kolektiboko kide: 2021ean estreinatu zen *Ogiak hizketan baleki* antzezlanaren gidoilari.

